



ETBko erredakzioko iskanbilaren kronologia eta konponbiderako LABen proposamena.

***Oharra:** LABetik Jon Otegi eta Andoni Basabe, eta ELAtik Juan Luis Korta bertaratu gara. Lehen zatian ELAko ordezkariak kronologiaren laburpen bat egin du. Hemen dagoena alde aurretik LABeko kideok prestatutako testua da, eta agerraldian izandako parte hartzeak gehitu ditugu. Hemen agertzen den kronologia hitzez hitz ELA irakurritakoa ez bada ere, oso antzekoa da.*

Labur egiten saiatuko gara, eta agerraldia hiru partetan egingo dugu. Kronologia labur batekin hasiko gara, ELAko kideak azalduko duena, eta hain zuzen ere istiluaren iturritik lehen mobilizazioetara. Hortik aurrerakoak sobera ezagunak badira ere, inork nahi izan ezker sakontzeko prest gaude erabat. Ondoren gakoak ulertzeko bi bideo eta dokumentu bat jarriko dugu zuen eskuetan. Azkenik, arazoa konpontzeko ikusten ditugun arazoak eta aukerak azalduko ditugu. Kronologiarekin hasiko gara beraz:

ELA

(Argitu bezala, hau ez da zehatz-mehatz irakurritakoa, LABek aurretik prestatuta zuena baizik)

- **Urriaren 21, ostirala:**
 - Viloriak Zurikairi Gernikako estatutuaren urteurrenaren (25 astelehena) bideoa egiteko agindu, enfoke berezi batekin egiteko.
 - Ados. Vitoria ostiralean CUATROra tertuliano doala eta, e-postaz bidaltzeko. Ez du irakurtzen.
- **Urriaren 25, astelehena, eguerdian.**
 - Viloriak Zurikaireren testua ez du egoki ikusten.
 - Testu berri bat proposatzen dio, baina eduki tendentziosoagatik, Zurikaraik ez du irakurri nahi (ikus-entzunezko komunikabideetan horrek testua sinatzea, edo bere egitea, suposatzen ohi du).
 - Zurikaraik zera proposatzen dio, nahi badu Viloriak berak irakurtzeko, eta bideoa berak editatuko duela.
 - Adostasunik ez, eta bideoa ez da emititzen, goizeko editoreak, Esther Udaondok erabakita eta albistegietako zuzendaria, Roberto Montalvillo, jakitun dela.
 - Bideoa halere ia amaituta zegoen, eta hementxe dugu guztiok ikusteko moduan.
- **Urriaren 25, astelehena, arratsaldean.**

- Viloriak testua behin-behineko langile bati eman, bideoa egiteko.
 - Langile hau, goizean gertatutakoaren berri dagoeneko bazuen, eta negarrari ematen dio. Arratsaldeko taldekoek hori ikusi eta batu egiten dira horretaz hitz egiteko.
 - Arratsaldeko editoreak urak nahastuta daudela ikusita, erredaktorearengana joan eta lasai egoteko, nahi badu testua moldatzeko, esaten dio.
 - Zenbait kazetariren artean testua moldatzen laguntzen diote, eta bideoa testu berri horrekin emititzen da. Bideo hori da hain zuzen ere zuzendaritzak webgunean zintzilikatu duena, arazoaren iturria horixe dela esanez. Arazoa atzetik zetorren ordea.
 - Arratsaldeko kazetariak, arazoagatik kezkatuak, ohar bat prestatzen dute, biharamunean erredakzio kontseiluak aztertzeko, eta konponbidea bilatzeko.
 - Ohar hori hainbat kazetariren artean banatzen eta errebotatzen da, baita erredakzio kontseiluko kideei ere.
 - **Arazoa ez dago EMITITUTAKO BIDEOAN, ZUZENDARITZAK WEBGUNEAN zintzilikatutako bideoan, baizik eta eguerdian inposatu nahi izandako testuan.** Zuzendaritzak dio lan zirriborro bat baino ez zela, eta hain zuzen ere zirriborro hori kaleratu izana salatu egin du. Ba:
 - Bat, ustezko zirriborroa irakurtzea agintzen denean, dagoeneko ez da zirriborro bat.
 - Bi, zirriborro hutsa balitz, ez zen inongo desadostasunik egongo, ezta? Ala egotekotan, kazetariak prestatutako -ia amaitutako- bideoa besterik gabe emititu ahal izango zen, ezta?
- **Urriaren 26, asteartea.**
 - Gaia erredakzio kontseiluan aztertzen dute.
 - Jaso egiten dute kexua, jakitun dira bezperan goizean gertatutakoaz, eta kexuari bidea ematea erabakitzen dute. Idazkia erredakzioan banatzen dute jendeak horren berri edukitzeko.
 - Viloriarekin hitz egin nahi dute baina eguerdikoko albistegiaren orduan ez dago erredakzioan. Beraz, posta elektronikoz kexuaren berri eman eta bide emango diotela jakinarazten diote erredakzio-kontseilukideek. Berarekin hitz egiteko prestutasuna agertzen diote.
 - Hiru kontseilukideek, Jasone Agirreren posta elektronikotik, zuzendaritzari eta langile batzordeari ere igortzen diote, eztabaidatu eta arazoa etxe barruan konpondu asmoz.
 - Idigorasek, inplizituki behin-behineko erredakzio kontseilua aintzakotzat hartuz, mezu bat bidaltzen dio albistegi taldeari kontseilua gezurretan dabilela esanez. Oraindik ez du barbarik egin ez kontseiluarekin ezta Maite Zurikararekin ere. Viloriarekin bai, antza.
 - **Urriaren 27, asteazkena**
 - Gaia DEIAN agertzen da, lehen orrian.
 - Idigorasek Zurikarai deitzen du. Espedientea irekiko diotela jakinarazten dio, gaia zerbitzu juridikoen esku jarrita, eta **ondoren** azalpenak eskatzen dizkio.

- Ondoren Agirrerri deitzen dio.
 - Berdin, espedientea irekiko diotela, eta **ondoren ere**, azalpenak eskatzen dizkio.
 - Ea nor den anonimo hori erredakzioan banatzeko galdetu, eta harrিতuta zera erantzun, behin-behineko kontseiluaren izenean sinatuta dagoela nahiz eta bere postatik bidalita egon. (Gainera, berarekin hilabeteetan bilduta egon den behin-behineko erredakzio kontseiluko kidea da). Horretxegatik banatu duela mezua, eta zuzendaritzari ere igorri diola hain zuzen ere arazoa eztabaidatzeko.
 - **“Erredakzio Kontseilua ez dela existitzen, ez zarete inor”** Idigorasek erantzun, eta bakarrik ikusten duela Agirrerri izenean bidalita dagoela. Erredakzio Kontseilua balira gauzak beste era batera izango liratekeela baina ez denez, ez direla inor. Leporatu egiten dio Agirrerri berak Deia filtratu izana.
 - Galdeketa egiten dio Idigorasek: ea nork idatzi duen kexua, ea Maiterekin hitz egin duten, e.a. Agirrek, nahiz eta jakin norengandik etorri den kexua, esaten dio arratsaldeko txandatik etorri dela eta kontseiluak jaso egin duela. Maite Zurikararekin hitz egin dutela diotso nahiz eta Maitek kontseiluaren babesik ez duela eskatu. Gainera, kontseiluak badakiela zer gertatu den besteak beste lekukoak egon zirelako.
 - “Al margen de todo esto, cuánta torpeza!” esaten dio Agirrek eta Idigorasek esaten dio berari irainik ez egiteko, berak ez duela inor iraindu, ez duela esan erradakziokoak bai direla torpeak, ea. Oso bero dago Idigoras eta beraz, hor amaitu egiten da elkarrizketa.
- **Urriaren 28 eta 29, osteguna eta ostirala**
 - Langile Batzordeak gaia aztertzen du, eta hurrengo asteazken hirurako langile batzarra eta kontzentrazioa deitzea erabakitzen da, aho batez (asteazkenean Patxi Lopez FORTAk antolatutako “Kalitateko Telebista Publikoak” jardunaldiak ixtera zihoan).

(Zurikarrik prestatutako bideoa, eta arratsaldean emititutakoa jarri dira. Viloriak inposatu nahi izandako testua ere banatu zaie parlamentariei, gakoa hortan dagoela azpimarratuz, ez bideoetan)

LAB

Hortik aurrera guk uste guztiok dakigula modu batean edo bestean gertatutakoa, prentsagatik edota bestelako komunikatuengatik. Kontzentrazioak, prentsa oharrak, ETBko zuzendariaren bi orrialdeko elkarrizketa CORREOn, erreakzioak...

Eta uneko egoera hauxe: Maite Zurikarai kazetariari azaroaren 3an eguerdian expediente mehatxua kendu, eta ohartarazpena edo “apercibimiento” delakoan geldituko zela. Jasone Agirre, behin-behineko erredakzio kontseiluko kideari azaroaren 16an ohartarazpena idatziz ematen diote, nahiz eta 11ko data eduki: *“hacerse eco de una denuncia anónima para la elaboración de un texto que no ha sido contrastado ni con el Jefe del Área de Política ni con la redactora implicada, y difundiendo el mismo sin que se*



ajuste a la realidad, siendo plenamente consciente de su transcendencia externa” dio testuaren lehen zatiak. Bigarren zatiak halere ez du bere jardueraz ezer aipatzen, baizik eta bezperan gertatutakoaren balorazio bat egiten da.

Guk behintzat leporatze honetan ez dugu deus ulertzen. Gainera, “ohiartzun egitea”, etxe barruan “kontrastatu ez izatea” eta gezurra izanda ere langileen artean banatzea... halakorik ez daukagu lan hitzarmeneko zigor arautegian jasota. EITBko zuzendaritzak ohartarazpenak ez direla zigorrak onartu du bestetik. Ondorioz, inon jasota ez dagoen figura batekin agertzen gara, eta indefentsio egoera batean aurkitzen gara bai langilea zein bere ordezkariok. Beraz, gure galdera hauxe da: ohartarazpena zigorra ez bada, zer da ohartarazpen bat? Gure uste garbiz, gutxienez bortxakeria ideologikoa da. Langile horiei zehazki eta erredakzioan orokortzeko asmo dagoen beldur bat. LABen aldetik horrelako kasuak zorrotz jarraituko ditugu jazarpen bihur ez daitezen, arrisku hori ikusten dugu eta.

Kontran ordea, “larteria” edo “abuso de autoridad” delakoa bai dagoela lan hitzarmeneko 69. artikuluan jasota: *“Kaltetutako langile baten nagusiak edo goragoko mailako lankideak Hitzarmen honetako lege bat haustea dakarren bidegabeko egintza bat agintzea larteria izango da eta baita antzeko ezaugarriak dituen agindu bat ematea edo irainak, mehatxuak, beldurrazteak nahiz gogorkeria egitea ere.”* Akaso politikako arlo-burua hain zuzen ere figura honetan koka zitekeen, hirutik hogeita hamar egunerako lana eta soldata zigorrarekin hain zuzen ere. Hau esanda, ez da eskatzen ari garena, baina zuzendaritzak hartutako neurrien desproporzioaren zantzu gisa hartzeko balio dezake datua.

Izan ere, berriro gure lan hitzarmenera itzulita, egokiago esanda lanpostuen definizioen arabera, erredaktorearen lana albisteak ERREDAKTATZEA, ELABORATZEA da, berriaren arduradun delarik, ez esatari hutsa izatea. Eta jakina, Zurikarai kazetariak ERREDAKTATU EZ DUEN testu bat ez du zertan bere egin behar, eta horretara behartu nahi izan zuen Vitoria jaunak, komunikazioaren -batez ere publikoaren- oinarrizko printzipio bat urratuz, informazioa eta iritzia nahastea alegia.

Langileok eman beharreko erantzuna ezin da arlo politikora mugatu. Arazoak betidanik egon dira, modu sotilagoen bidez ala argiagoak. Behin-behineko langileen ezegonkortasuna erabiltzea ez da berria. Autozentsura ere ez da kontu berria. Orain arteko kolore ezberdinetako zuzendaritzek modu batean edo bestean bideratu ahal izan dute euren gobernuetako irizpide mediatikoak. Eta urteak dira hain zuzen ere ETB eta irratietako erredakzioetatik arazoari konponbidea bilatzen ibili garela, ez da berria. Baina oraingoan edalontzian isuritako beste tanta bat izateaz gain, zentsura zuzenaren marra gorri bat gainditu egin da.

Urteak dira beraz, arazo bati konponbidea eman nahian gabiltzala, eta proposamenak aspalditik daude mahai gainean jarrita. Zuzendaritza berri guztiei gauza bera esaten diegu aurkezpen egunean: *“Ez dakigu zenbat denbora egongo zareten hemen, baina langileok hasieratik gaude, eta beti egongo gara. Geu gara komunikabide publikoa ahalik eta ondoen funtzionatzeko interes gehien dugunok”*. Eta erredakziora etorrira, proposamen zehatzak daude, langileen aldetik eratorritakoak, LABen aldetik



proposatutakoak, eta langile batzordeak aho batez azken negoziazio kolektibo guztietan plataforman jasotakoak:

1. Zuzendaritzak egindako ohartarazpenak bertan behera uztea. Esan bezala, zigorra ez badira ere, ONARTU EZIN DEN MEHATXUAK DIRA.
2. ERREDAKZIO ESTATUTU **PROFESIONALA** ADOSTEA. Hika-mika politiko guztiak alde batera utzita. Arestian esan bezala, gobernu bakoitzaren mezua bermatzeko hamaika modu daude, baina alhora ditzagun kontu politiko guztiak eta muga gaitzen arlo PROFESIONALERA.
3. Bitartean, orain arte Estatutu horretan litekeezko Erredakzio Kontseiluari eskaintzen zaizkion bermeak dagoeneko funtzionatzen ari den Behin-behineko Erredakzio Kontseiluari. Dagoeneko funtzionatzen ari dela diogu, izan ere bai baitira urte pare bat zuzendaritzarekin negoziazioetan dabiltzala.
4. ETBko langile guztiak eta kasu honetan kazetariak euren lana askatasunean eta profesionaltasunez egin ahal izateko, LAN BALDINTZAK bermatu behar dira. Behin behinekotasuna eta prekarietate mehatxuek irizpide profesional hauek kolokan jartzen ditu. Parlamentuari zera eskatzen diogu, plantilla presupuestarioa handitu ahal izateko konpromisoa hartzeko. Orain Enplegu Eskaintza Publikoak aurrera ematen ari badira ere, ez dira nahikoak. Parlamentuak muga bat jartzen du, eta EITBko zuzendaritzak tranpak egitera eraman izan du, LABez aparte Herri Kontuen Euskal Epaitegiak berak ere salatu izan duen bezala.

Paperak dena jasaten badu ere, duela aste pare bat parlamentu honek hartutako konpromisoa agurtu egiten dugu: *“komunikabidearen egitasuna, neutraltasuna, aniztasuna, interes informatiboa eta independentzia profesionala”*. Hitzetatik ekintzetara pasa gaitzen, eta printzipio hauek berma ditzagun.

Eskerrik asko.

ARALAR (Basabe)

- Egiturako lan zerrenda eguneratu behar da
- Behin behineko Erredakzio Kontseiluaren bete beharrez galdetu du, eta bertako kide izateagatik zigortzea arbuia du.
- Ohartarazpenaren figura inon jasota ez badago, zer egin dezake kazetariak? Nola defenda daiteke?
- Marra gorri bat igaro dela, beste joko zelai bat irekitzen dela ikusten du. Ea zer egin daitekeen marra gorria berriro gaindi ez dadin.



EZKER BATUA (Arana)

- Zigorra inon jasota ez badago, zer suposa dezake?
- Zein da erredakzioko giroa?
- Balorazio orokor bezala, tristea dela, eta zuzendaritza leku txarrean kokatzen duela.

PP (Urkijo)

- Tristeia, arrazoi hauek eta besteak direlako, eta tamalgarria. Gure autogobernuaren bitxia da, eta nazionalismoak bere konjuntuan, politiko eta sindikalean, EITB erabili nahi duela.
- Viloriaren bertsioa ez duzue entzun.
- Zeintzuk diren arlo-buruaren eginkizunak ezagutzen al dituzue?
- Bideoak ikusita, ondar-ale batekin mendi osoa eraikitzen ari ote garen. Ez duela ezer arrarorik nabaritu.
- EITB ez erabiltzeko deia egin du.

PSE (Gorostiza)

- Beldurtuta eta harrিতuta garapenagatik.
- Zurrumuruak eta zirriborroak ez dira eztabaidagai izan behar. ETBn zirriborro pertsonalak hedatzea ohitura al da?
- Banatu berri dugun idazkiaz entzun badu ere, orain arte ez duela esku-tartean eduki. Akats gramatikal eta historiko potoloak ditu, eta ez al dago hori zuzentzerik ere?
- Arlo-buruaren funtzioak ezagutzen al dituzue?
- Zer da behin-behineko Erredakzio Kontseilua? Nork aukeratzen du eta nola? Zergatik probisional edo klandestinitate izaera hori?
- Aurreko zuzendaritzak ez zuen inondik ere onartu. Zuzendaritza hau izan da ahalbideratu egin duena.
- Viloriarengana jo al duzue kontrastatzeko? Salaketa publikatu baino hiru minutu lehenago jakinarazi zitzaion Viloriari asmoa. Ondoren ere hitz egin al da?
- Askatasunaz... karnetarik gabeko kazetariak zuzendaritzara iritsitakoan, lehen aldiz eskolta behar dutenean, zein ekimen egin zuen komiteak?
- Ente barruko pertsonen ere, teleberrietako editoreak, kritikak, vilipendiadas profesional y personalmente, zein ekimen hartu du komiteak?
- Gai zerrendatik kanpo badago ere, aurreko zuzendaritzak erabiltzen zituen amarruez hitz egin nahiko luke. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, komitearekin egon ondoren, aurreko zuzendaritzak kazetariak erabiltzen zituela aipatu genuela dio. Komisario politikorik ba al zegoen? Noiz salatu zuen ezer komiteak?



EAJ (Uribe-Etxebarria)

- Gertakizun larria da. Askatasuna eta oinarritzko printzipio batzuk urratu dira, langileak kritikatzeko, iraintzeko, gezurretan ibili zaretela... Idigorasek CORREOn botatakoak...
- Gutxiengo bat al zarete?
- Atera ditugun komunikatuetan agertzen dena berresten al duzue?
- Ohartarazpenak kentzeko eskaerarekin mantentzen al zarete?

BIGARREN TXANDA

LAB

- Zigorra arautegian jasota ez dagoenez, batetik indefentsioa suposatzen du. Bestetik, gutxienez bortxakeria ideologikoa, kazetari horiengan zehazki eta erredakzioan beldurra hedatzeko mehatxua.
- Banatutako testuaz... berriro diogu, arazoa ez dagoela bideoetan, inposatu nahi izandako testuan baizik. Portzierto, akats gramatikalak eta historikoak baditu, potoloak gainera... izan ere Viloriak idatzitako testua da! Eta arratsaldeko erredaktoreak berak zuzendu behar izan zuen, bideoan ikusi ahal izan dugun bezala...
- Zirriborro pertsonal bat banatzeaz, kontu pare bat: lehenik, testu bat beste pertsona bati ematen zaionean, irakur dezan gainera, dagoeneko gutxienez bi pertsonena da, ez pertsonala; bigarrenik, zuzendaritzak arazoa gauean emititutako bideoa murriztu nahi badu, ondorioak eta egia ateratzeko jendarteari datu guztiak eskaintzeko beharrean aurkitu gara. Testuarekin akordiorik ez badago, eta halaxe ondorioztatzen da, izan ere ia amaituta zegoen bideoa ez baitzen emititu, inposizio saiakera bat egon da, eta horixe da salatzen duguna. Ez da kazetariaren lana errespetatu.
- Erredakzioako giroa... kontutan edukita azken aldiko langile batzarrrik parte-hartzaileenak izan direla, ekarpenengatik ere bai, eta mobilizazioetan izandako parte-hartzeak ere ikusita... jendea oso haserre dago. Eta bestetik, komunikatuak aho batez onartu dira, langile batzarretan, eta komitean gauden lau sindikatuok.
- Zuzendaritza ezberdinak pasatzen dira, eta bakoitzak bere ildo informatiboa eraman nahi du. Esan bezala hamaika modu daukate hori egiteko, baina utz ditzatela kazetariak profesionaltasunez lan egiten, eta euren kontzientziei ez erasotzeko.
- Viloriarengana kontrastatzearen jotzeaz... kontua da mezua eguerdian bidali bazitzaion hain zuzen ere berarekin hitz egin nahi zelako, eta etxean aurkitzen ez zelako izan zen. Hurrengo goizera arte ez zen harremanik egon, komunikabide zehatz batean agertu zelarik. Nondik filtratu zen ez dakigu. Komitearen aldetik ez behintzat, eta kaltetutako kazetariengatik ere ez, eta guztion asmoa etxe barruan konpontzea zen.
- Kontrastatu ez izanaz... hain zuzen ere aipatutakoaz gain, komitea izan da

zuzendaritzarekin eta administrazio kontseiluarekin harremanetan jarri dena, eta ez alderantziz.

- Jakina, komunikatuak berresten ditugula, hasierako agerraldian esan bezala.
- Urgell sailburuari emandako erantzunaz, berresteaz gain, esandako gezur bat salatu nahi dugu berriro, hain zuzen ere Jasone Agirrek berari egindako ohartarazpena onartu egin zuela esan zuen eta. Hori gezur hutsa da, eta ez Agirrek ez Zurikaraik ez dute salaketa ontzat ematen.
- Ohartarazpenarena ez dugu arautegian jasota. Badirudi zuzendaritza berri honek ez duela lan hitzarmena irakurri ere egin. Beraz espedientearena baino egoera okerragoa da. Majistraturara ezin da jo, arautegian existitzen ez den ezereen kontra.
- Ez dugu uste ezertan geldituko denik, ez dagoelako kasurik. Inork arau-hausterik egitekotan zuzendaritzak egindako larderia izan dela. Lanpostuen definizioetan argi agertzen da albistea erredaktatzea kazetariaren ardura dela. Albistea gustatzen ez bazaio, arlo-buruak ez emititzea erabaki dezake, baina inondik ere ez testu bat inosatzea. Eguerdiko kazetariak Viloriari bideoa lokutatzeko aukera eskaini zion, bai eta laguntza eskaini ere, edizioarekin, baina erabakia ez emititzea izan zuen.
- Akaso ezezagutzaren ondorioa dela, eta beste medio pribatuetan agian funtzionatzeko modua hori da eta ez dagoela aurre egiteko aukerarik, baina gure kasuan bai, ikusten dugun bezala.
- Erredakzio Kontseilua ez da talde klandestino. Aurreko zuzendaritzak ere ontzat eman zuen, aurreko zuzendaritzan sinatu zen osatzeko aukera, eta bai Otamendirekin eta oraingo zuzendaritzarekin bildu izan da. Bere izaera ezin da izan “orain bai, orain ez, orain komeni zait, orain auskalo”, ohar bat atera izanagatik. Aurreko zuzendaritzak ez zuen ganorazko pausurik eman. Oraingoak hasieran baietz ematen bazuen ere, eta poztu ginen, auskalo zertan gelditzen den. Klandestino baino, talde “suizida” izatekotan, izan ere bertan parte hartu ezker, begira zein ondorio dituen.
- Danboreneak Administrazio Kontseiluan esandakoaz: LABek beti kritikatu izan du erredakzioko kontrola.

ARALAR

- Aipatu den informatiboetan lidergoa... lider izango dira harik eta albistegien ardatzak parlamentuak onartutakoak baldin badira, ez beste batzuk.
- Nagusikeria eta inposizioa bidegabeak dira.
- Bideoa eguerdian ez emateak zerbitzu publikoaren kalitateari kalte egin dio, nagusikeria baten ondorioz.
- Zuzendaritzak ez du arazoa konpontzen jakin. Ohartarazpenaren figura asmatu egin behar izan du. Arazoarekin aurrera jarraitu ezin, eta erantzuleak seinalatu izan nahi izan ditu horrela.
- Espedienteak kentzeko proposamen zehatza egiterik al dago? Nori, nork, nola?



PSE

- Hainbat kontu argi gelditu zaigu, beste hainbat ez: Arlo-buruaren funtzioak ezagutzen dituzuen ez dago garbi. Bortxakeria ideologikoa eta elkartasunaren arteko marra garbi gelditu da (mehatxupeko zuzendari eta baztertutako editoreen ausardiagatik ari da).
- Arratsaldean emititutako bideoan egindako zuzenketengatik erredaktorea zoriontzea.
- Ez da zaila filtratzea, baldin eta e-postaz 600 pertsonari banatzen bazaie.
- Ohartarazpena hitzarmenean jasota ez egotearekin ados, baina akaso ezadostasuna ahalik eta modu arinenean adierazteko modu bat ote?
- “Klandestino” hitza erabiltzeagatik barkamenak, adjektibo baten bila zebilen eta ez du egokiena aurkitu.
- Populazioaren erdia baztertzen duen telebista batek etorkizunik duen uste al duzue?

EAJ

- Informazioan sinadura oso garrantzitsua da. Kodeak daude, estilo liburuak...

HIRUGARREN TXANDA

ELA

- Proposamena gogoratzen dugu, ohartarazpenak kentzea, erredakzio kontseilua martxan jartzea, eta gai politikoak zuentzat uzten ditugula. Arlo sindikalera mugatzen gara.
- Sinadura garrantzitsua da, eta telebistan sinadura ahotsa da.

LAB

- Ohartarazpena komiteak dagoeneko Suriori eskatu diola, eta ezezkoa jaso dugu.
- Arlo-buruaren eginkizunak zeintzuk diren ederki asko dakigula, bai eta zeintzuk ez diren ere. Egindakoa ez da arlo-buruaren eginkizuna, baizik eta komisario politiko batena.
- Jakina jendartearen erdiarentzat egiten den telebistak etorkizunik ez duela, baina jendartearen erdiarentzat egiten baldin bada, gero ez etorri kexatzen erdi horrek alde egiten badu.
- Ez du balio esatea konfabulazio dagoela, eta aurreko egunean (Idigorasek CORREON esandakoaz) LABek agindu izan duela azken 24 urtetan enteratu gara. Aurreko zuzendaritza abilagoa zen, eta ez zuten inor derrigortzen euren ez zen testua irakurrarazteko. Vitoria etorri da, berriegia zen, eta trakets aritu da. Ajuria Eneako garaietan ere, ezker abertzalea legala izanik baztertuta zegoenean kritiko izan gara. Arlo-buruak bai behar ditugu, baina ez ordea komisario politikorik.



- Arratsaldeko kazetaria zorionduko dugu bere partez, baina merezi du nabardura hau aipatzea: testuaren akats “historikoak eta gramatikalak” negarrez zuzendu behar izan zituela, eta erredakzioko kideek lagunduta. Eguerdiko giroa jakitun, arratsaldean ez zela giro eta lasaitasuna transmititu behar izan zioten lankideek.
- Konponbiderako proposamenak agerraldiaren hasieran egindakoak dira, beraz aktan jasota daudela suposatzen dugu.